

# Euskarazko kazetaritzaren v. jardunaldiak: umorea komunikabideetan

**Noiz:** 2007ko apirilaren 19an, 23an, 26an eta maiatzaren 3an.

**Non:** Iruñean, Gizarte-zientzietako eraikinean, 12. gelan.

**Nori zuzenduta:** Publiko osoari zuzendutako jardunaldiak.

**Antolatzaileak:** Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra eta Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Unibertsitateko Kultura Ekitaldien Zerbitzua eta Abarrots Euskara Taldea.

Urtero antolatzen dira euskarazko kazetaritzari buruzko ekitaldi hauek eta helburuetako batzuk hauexek dira: Kazetarien esperientzia gurera ekartzea, haien ikuspegi, gogoeta eta analisiak entzule eta kazetaritzan interesatuta daudenei hurbiltzea.

Parte hartuko duten gonbidatuak hainbat komunikabidetatik etorriko dira, eta gaur egungo gaiak garatuko dituzte entzuleekin eztabaida bizia sortzeko asmoz. Bosgarren jardunaldi hauen gaia "umorea komunikabideetan" izango da.

## Egitaraua:

### 2007ko apirilaren 19a, osteguna

19:00etatik 20:00ak arte.

**Gaia:** Umorea euskal kazetaritzan XX. mendearen hasieran. Javier Diaz Nocik aurkeztutako hitzaldia (Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea).

### 2007ko apirilaren 23a, astelehena

19:00etatik 20:00ak arte.

**Gaia:** Umorea telebistan.

Urko Aristi kazetariarekin mahai-ingurua (EITBko eguraldi aurkezlea), Iban Garate jaunak aurkeztuta.

### 2007ko apirilaren 26a, osteguna

20:15etatik 21:00ak arte.

Ilaski Serrano kazetariarekin elkarrizketa

(irradi eta EITBko Mihiluze programaren aurkezlea eta Euskadi Gaztea-ko esataria).

### 2007ko maiatzaren 3a, osteguna

19:00etatik 20:00ak arte.

**Gaia:** Albisteak keinuaz.

Julio Ibarra kazetari eta Bilboko Metroko Komunikazio arloko arduradunarekin hitzaldi-solasaldia (EITBko albiste aurkezle ohia).